

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, guk identifikatutako gabeziari aurre egiteko eskainiko dugun zerbitzua aurkeztu eta zehatz-mehatz deskribatuko dugu.

Azken urte hauetan online produktuen erosketak gorakada izugarria jasan dute. Eta honako erosketak hauek herrietako denda txiki askoren itxiera ekarri dute. Gorakada hau ikusita eta etorkizun batean jarraituko duela aurreikusita, webgune bat sortzea erabaki dugu. Webgunean bertan herriko dendek beraiek saltzen dituzten produktuak ikusgai zein salgai izango dituzte. Era honetara bezeroek etxetik erosketak era eroso batean egiteko aukera izango dute. Beraz gure helburua, gure bezero potentzialei era ezberdin batean aurrera jarraitzeko aukera bat eskaintzea da.



Gure proiektua berritzailea izango da inguruko herrietan horrelako ideiarik aurrera atera ez baita. Erosleek produktu bat erosi ondoren, norberak bere etxean produktuak jasotzeko aukera edota dendara bila joateko aukera izango du. Gure bezeroak dendariak izango direnez, guk webgunean salduko dugun eta erosleak dendan erosiko dezakeen produktuaren prezioa ezberdinak izan daitezke, izan ere, dendek prezioak haien nehetara moldatzeko aukera izango dute.

Dendei laguntzeko sortutako proiektu bat garenez hainbat bide emango dizkiegu haiek egokiena aukera dezaten. 3 egoera gerta daitezke gure zerbitzuak kontratatuta dauden bitartean; lehenengoan denda ez frankiziei mozkinen gaineko "zerga" bezelako bat ezarriko dizkiegu, zerga hau %3-koa izango da. Bigarren kasua denda frankiziatuei zuzendua dago, hauei mozkinen %6-a eskatuko diegu. 3º kasuan zerbitzua jasotzen jarraituko da, baina eskatutako ehunekoa %0 izango da, eszeptzio hau baldintza bakar batekin gerta daiteke; dendak beste gastuen neurketak egin ondoren haien emaitzak eskaintzean defizita dagoela aurkeztea. (aplikatutako ehunekoa webgunean lortutako etekinei lotua egongo da).

Kimetzek aukerak ez dituztenei ateak zabaltzen saiatzen da, herrietako dendei besteak beste, baina aratago joan nahi dugu, horregatik enpresako langile guztiak lbaiondoko gazte espetxean dauden gazteak izango dira, hauek gure enpresak eta eusko jaurlaritzak ordaindutako ikasketa batzuen bidez lortuko dituzte ezagutzak eta espetxeko zigorra bukatu ondoren gure enpresaren barne izateko aukera edukiko dute.

Orain arte aipatu dugun guztiaz gain, eskaintzen dugun segurtasuna nabarmendu



nahi genuke. Geure zerbitzuak baliatuko dituzten dendei, garbi utzi nahi genieke webguneko ordainketak eta bestelako banaketak era seguru batean egingo direla. Datu guztiak, hau da, irabaziak, produktuen salmenta kopurua eta bestelakoak seguru mantenduko ditugu.

Ordutegiari dagokionez, nahiko ordutegi zabala izango dugu, gure webgunea 24 orduz zabalik egongo baita. Hau da, edonork nahi duen orduan edozer

erosteko aukera izango du. Banaketari dagokionez, etxez-etxeke banatzea edo dendan bertan jasotzearena daude. Erosleak erosketa dendan bertan jaso nahiko balu, dendaren ordutegira egokituko beharko litzateke. Aldiz, produktua etxera eramatea nahiko balu, hau izango litzateke astean zehar izango genukeen ordutegia.

Egunak:	Ordutegia:
Astelehena	10:30-13:30 ----- 14:00-19:30 bitartean
Asteartea	10:30-13:30 ----- 14:00-19:30 bitartean
Asteazkena	10:30-13:30 ----- 14:00-19:30 bitartean
Osteguna	10:30-13:30 ----- 14:00-19:30 bitartean
Ostirala	10:30-15:00 bitartean
Larunbata	10:30-15:00 bitartean
Igandea	itxita

Arreta zerbitzuei dagokionez, edonork edonolako zalantza bat izango balu gure ordutegiak honako hauek dira:

Egunak:	Ordutegia
Astelehena	10:00-13:00 bitartean
Asteazkena	10:00-13:00 bitartean
Ostirala	10:00-13:00 bitartean

Gure enpresak izango duen oinarri nagusi bat kalitatea izango da. Etengabe hobetzen saiatuko gara, gure bezeroen bilakaera azertuz. Horrez gain kalitate hobereena eskaintzen duten baliabideekin arituko gara lanean (webgunea, txirrinduak...). Webgunearen sorketari dagokionez, aditu batekin harremanetan jarriko gara guzti hau aurrera atera dezan.